Alfonso SASTRE

# Veinte años después

Me pongo a mirar al pasado bajo este epígrafe obvio que suena a aquel novelón de Alejandro Dumas: «Veinte años después». ¿Después de qué? En el libro de Dumas, ya se recordará: después... de aquellas inolvidables jornadas heróicas y jocundas de **los tres mosqueteros**. Veinte años después ya nada será igual, en virtud de las injurias del tiempo, y algo como un frío dorado ha recubierto el recuerdo de lo que entonces era la vida que estallaba en cada jornada, a la luz de cada despertar, y también en las noches sin tregua... Y sin embargo, veinte años después, la novela continúa. Hasta aquí el recuerdo de Dumas, que decidió considerar un período de veinte años —y luego habrían de considerarlo comentadores culturales como Ortega y Gasset— como el propio para que se produzca una inflexión generacional.

Volvamos nosotros de aquella ficción a nuestra historia. Los que vivimos aquellas jornadas desde posturas combatientes nunca podremos olvidarlas; pero no se trata ahora de aposentarse en una efemérides de manera que las batallas aparezcan como las batallitas del abuelo. Miramos ahora a nuestro alrededor, ¿y qué queda, por ejemplo, de los héroes —de los mosqueteros— de antaño? Pero también, y sobre todo: ¿en qué situación se encuentran hoy aquellos proyectos políticos y aquellas esperanzas? En cuanto a los héroes, a algunos de aquellos mejor será relegarlos al olvido. Quedémonos con quienes continúan en las líneas de vanguardia de esta pelea. Todos conocemos sus nombres y admiramos sus ejecutorias.

Mi opinión es que hoy está suficientemente verificada la línea política que optaba por una ruptura democrática si de lo que se trataba —claro está— era de llevar a cabo un proyecto de soberanía nacional —de autogobierno— y de justicia social. No fueron pro esta deseable vía las cosas, efectivamente, pero eso no quiere decir, ni mucho menos, que se haya terminado la historia y, desde luego, sigue vigente la necesidad de una reforma de la Constitución española, que fue rechazada por el pueblo vasco (¿se olvida algunas veces eso?), texto que ya ha probado suficientemente su carácter de marco legal muy estrecho he indeseable, en la medida en que es un papel... que cumple un papel (jugamos un poco con la polisemia de esta palabra) de férula política, y cada día más se evidencia la necesidad de un cambio del marco legal. (Fenómenos de carácter nacional en Europa, frente a los Estados históricamente establecidos, contribuyen a ilustrar lo acertdo de los puntos de vista que entonces se llamaban —y volverán a llamarse con toda su fuerza— revolucinarios).

En esta hora —cuando lo que fue vida es efemérides— nos damos cuenta de lo decisivo que resultó para nuestra historia aquel lustro de 1970 (Proceso de Burgos) a 1975 (muerte de Franco) pasando por el atentado de ETA al almirante Carrero Blanco (1973), el cual es evidente que nos ahorró unos años de duro franquismo, lo que fue decididamente positivo aunque no se diera, en el trance de la muerte del Dictador, aquella ruptura democrática que era, sin duda, una condición, «sine qua non» del autogobierno y de la justicia. En cuanto al proceso de Burgos, fue quizás el primer aldabonazo con resonancia mundial sobre la existencia de naciones no soberanas en la Europa llamada democrática. Intelectuales de la importancia y de la notoriedad de Jean Paul Sartre se hicieron eco del problema e internacionalmente circuló el torrente de la solidaridad. ¿Quién, como antes decía, podrá olvidar aquellas jornadas?









Jose Luis ALVAREZ ENPARANTZA

# Bi hitz bakarrik

Burgosko auziaren inguruko giroaz, oso laburki, zerbait esateko eskatu didate.

Oso zaila da. Giro hartaz jabetu-ala, oroitzapen uholdea baitator nire kaskora... Eta gaurko irakurle gaztea, oso nekez kontura baitaiteke hura zer izan zen.

Burgos-ko auzia hasi zenean, ni Tarnos-en bizi nintzen, Landetan, Baionatik ahalik eta hurbilenik (Euskal Herria debekatua baineukan). Eta paperik batere gabe nengoen: ez espainolik ez frantsesik. Beljikatik etorri berria, Bordaleko Unibertsitatean (Haritselhar eta Mitxelenari esker lortutako «lecteur» postu batean) lanik gabe geldítua nintzen, Marcellin frantses-ministroak bota baininduen: "sa présee est indésirable en France, notamment dans le Sud-Ouest" zion bere agindua.

Guk (luzeegia litzateke hemen "gu" horiek ginen azaltzea) "Branka" aldizkaria argitaratzen genuen 1966.ez geroztik.

Carrillok Bruselan esan zuen bezala: «Gora Euskadi Askatuta», que es lo mismo que gritar «Viva España socialista»... Horixe zen giroa: euskal arazoa, Espainiako arazoaren azpi-kapitulua zen. Eta ETAren barruan, zatiketa handia zegoen. 1970ko Urrian Madariagak, «Beltzak», Kruttwigek, Etxabek eta Edur Arregik, ETA-ko joera abertzalekoen izenean, helburu abertzale eta sozialisten indarketa eskatu zuten. Besteek, aldiz, aparatoan abilki sustraiturik, Espainiako «ezker marxista-leninista»ren adar huts bihurtu nahi zuten ETA. Zatiketa, irakurleak dakikeenez, handik hiru urtetara mamitu eta agertu zen. 1970ko bukaeran saltsa handia zegoen ezker abertzalean. Eta gu, Iparraldean bizi ginen ezkertar abertzaleok, oso tristaturik segitzen genituen Hegoaldeko gertakariak.

1970ko Abenduak, horretara, oso egoera zailetan harrapatu gintuen. Gartzeletako harremanak «aparatoak» eramaten zituen; eta bagenekien desbideraketa-lana oso aurreratua zegoela. Eta kanpoko harremanak ere, PC ofizialen bidetik eramaten zirela zirudien; hein batez bederen. Monzon-ekin eraikitako «Anai-Artea»k eta «Euskal Elkargoa»k, horretara, funtzio ezin garrantzitsuagoa izan zuten Burgos-ko garaian. ETAk, Etxabe-ren bitartez, Monzon-en eskuetan jarri baitzuen Burgosko epaiketaren arazoa Beihl kontsula harrapatzean. Hots, jakina denez, Beihl-en bahiketak kilikatzen zituen kazetariak; eta ez ETA barruko bi joeren desberdintasunak.

Bederatzi heriotza-penen berri ikaragarria zabaldu ondoren, horretara, oroitzapen tinko bat gelditu zen gailen abertzaleen gogoetan: Burgosko kondenatuek, epaiketa amaitzean, «Eusko gudariak gara» kantatu zutela. Gerlaaurreko gudariekiko lotura eta aitor publiko honek, zeharo jarri zuen arazoa, funtsean zegoen puntuan: ETA Eusko Gudaroztea-ren segida zen.

Eta giroaren irudi fidela izan daitekeenez, hona hemen "Branka" aldizkariak (13. zenbakia, 1970.eko abenduan) argitara zuen "Editoriala": "... Euskaldun anaiok, euskaldun borrokakide maiteok: ez esperantza gal, otoi: Oraintxe galdua baitu Burgos-ko borregokeria gorrian espainiatar inperialismoak. Euskal odola agortua ez den zain guztietan, ohiu bakar bat gailen: Gora Euskadi askatuta:... Ez dakigu oraindik zuetako zenbatek irakurriko ote dituen inoiz "Branka"ren lerro apal triste hauek. Nolanahi ere: aintza zuei! Zuek zarete, Euskaditik Espainiatar okupazioa: Behera espainiatar inperialismoa: Gora Euskadi Askatuta".

Egun latzak zinez Iparraldean bizi ginenontzat.

Segida ezaguna da.